



Lehendakariaren probidentzia

Urola Erdiko Mankomunitateko gidari-biltzaileen egoera ikusita beharrezkoa da gidari biltzailea kontratatzea **legeak eskatutako moduan hautaketa prozesu batekin bete arte**, eta hori betetzeko lan poltsarik ez dagoenez, Lanbidera jotzea erabaki da.

Urola Erdiko Mankomunitateko gidari biltzaileen lan poltsa agortuta dago. Bestalde, inguruko mankomunitateetan galdetuta, ez dago lan poltsarik.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere 58. Artikuluak dio:

“1– Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2– Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3– Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4– **Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoek baliatzeko aukera egongo da.”**

Kontratazioa egitea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, gidari biltzaileen postua, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 11 artikulua arabera, lan-eskaintza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez egitea eta enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratzea. Hileko soldata gordina postuari dagokiona izango da.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Gidari biltzaile (C2), postua betetzeko:

Kontratu mota: 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuen Legearen Testu Bategina onartzen duena: 15.2 artikulua (ekoizpen gorabeherangatik kontratua (402).

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Gidari biltzaileari dagokiona.

Soldata: C2 Taldea

Lanpostu-mailako osagarria: 12

Lanpostu horren eginkizunak honako hauek izango dira:



- 1.- Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea osatzen dute udalerrietan hondakinen bilketa-lanak egitea.
- 2.- Mankomunitateak erabiltzen dituen kamioiak egoki erabilia, agindutako eremu zein tokietan zamalanak egitea, batik bat, hondakinen bilketakoak. Alegia, kamioiak gidatzeaz gain, bilketa bera ere burutzea.
- 3.- Kamioiaren ardura hartzea eta ohiko garbiketa eta mantentze-lanez arduratzea, edota bere arduradunari horren berri ematea. Halaber, balialiabide materialen oinarrizko mantentze-lanez arduratzea, eta haien egoeraren berri ematea arduradunari.
- 4.- Larrialdi eta ekarpen guneeetako bilketa eta garbiketa.
- 5.- Intzidentzien eta sortutako hondakinen ordainketak kontrolatzeko sistemen aplikazioa eta jarraipena egitea.
- 6.- Bere kualifikazio profesionalaren arabera, Mankomunitatea osatzen duten udaletako Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko unitateei laguntzea.
- 7.- Bere jardun esparrurako hobekuntzak proposatzea.
- 8.- Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, hierarkia mailan gorago dagoenak hala aginduz gero.

- Beharrezko prestakuntza:

- o Eskola ziurtagiria
- o C gidabaimena
- o Gidarien kualifikazio txartela
- o Euskarazko 1. Hizkuntza eskakizuna (B1)

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio irizpide hauek** hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestakuntza:

- o Eskola ziurtagiria
- o C gidabaimena
- o Gidarien kualifikazio txartela
- o Euskarazko 1. Hizkuntza eskakizuna (B1)

3.2 Lan esperientzia hondakin bilketan (gehienez 10 puntu):

- Deialdia egiten duen administrazio publikoan hondakin bilketan gidari (E) edo gidari-biltzaile (C2) lanpostuan izandako esperientzia 0,50 pt/hilea.
- Gainerako administrazio publikoetan bestelako gidari (E) edo gidari-biltzaile (C2) bezala izandako esperientzia 0,15 pt/hilea.
- Enpresa pribatuan lanpostuarekin zerikusia duten funtziotan izandako esperientzia 0,05 pt/hilea.

3.3 Prestakuntza osagarria (gehienez 2 puntu):

- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: deituriko lanpostuaren eginkizunekin edo honetan jarduteko trebetasunekin loturiko gaietan zerikusi zuzena dutenak 0,05 p/orduko.



4.- Hautaketa prozesua:

1. Eskabideak aurkezteko epea: 5 egutegi egun.
2. Onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda:
 1. Lanbideko web-gunean adieraziko dira onartuak eta baztertuak zein diren.
 2. Baztertuek hiru eguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.
3. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda eta merituen behin behineko azterketa:
 1. Urola Erdiko Mankomunitateko web-orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira.
 2. Lehenengo bost hautagaiei elkarrizketa egiteko deituko zaie.
4. Behin betiko emaitzak Urola Erdiko Mankomunitateko web-orrian argitaratuko dira eta kontratazio proposamena egingo da.

5.- Epaimahai kideak:

Ingurumen zerbitzuko arduraduna
Koordinatzailea

Azpeitian, sinadura elektronikoaren egunean
Joanes Amenabar Altuna



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026EBAZ0012-Ebazpena: oinarriak/Resolución: bases (UROLA ERDIKO MANKOMUNITA